

“Garbiketa borrokan. Funtsezkoak bagara lan-baldintza duinak”



Osasun zerbitzuetan, hiru lurraldeetan 2500 bat langile , **ia denak emakumeak**, aritzen dira Osakidetzarako garbiketa lanak egiten, azpikontratatuta. Behargin hauen **aldarrikapen nagusia homologazioa da**, hots, Osakidetzaren garbiketa langileen baldintza berak izatea, lan beretsuak egiten baitituzte. **Bost urte daramatzate hitzarmena berritzeko negoziazioetan**.

Bost urte daramatzate negoziazioetan, eta Osakidetzako 1.Berdintasun planaren sarreran irakur genezake: Osakidetza bat dator erakundeek berdintasunarekin duten konpromisoarekin, nola ez: herritar guztiei osasun-arreta ematen dien eta ***Euskadiko emakume enplegatzaile handiena den enpresa publikoak*** asko egin dezake berdintasunaren alde. Baita gaur egun Covid-19ko pandemiaren ondorioz bizi dugun osasun larrialdiko une batean ere. Osakidetzak ez ditu bere lehentasunak alde batera uzten, eta gero eta gogotsuago lan egiteko asmoa du, genero-berdintasunaren helburua lortzeko, bai barruan, bai euskal gizartean.

Konpromiso horren emaitza da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako osakidetzako I. Plana (2021 - 2024).

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko jarduerak Osakidetzaren nortasun-ikur dira betidanik, lehen Osasun Sailaren legealdiko berdintasun-planei lotuta eta orain gure lehen Plan propioan jasota.

2016ko urtarilaren 20an, Osakidetzak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko konpromisoa hartu behar zuela erabaki, eta publikoki jakinarazi zuen osakidetzako Zuzendaritza Nagusiak, eta erakundeko pertsona eta interes-talde guztien artean zabaldu zuen.

Konpromiso haren edukia honako hau da:

Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuak bere konpromisoa adierazten du emakume eta gizonen berdintasun erreal eta eraginkorra izango duten politikak ezarri eta garatzeko.

Garapen jasagarria sendotzea bermatuz, ziur gaudelako berdintasunaren aldeko erronka hau gure erakundearentzat eta gizarte osoarentzat balio erantsi bat dela.

*1. Erakundeko jarduera, programa eta **zerbitzu guztietan** genero-ikuspegia txertatzea sistematikoki eta zeharka, bai barrura begira bai kanpora begira; horretarako, honako hauek gauzatu behar dira:*

*1.6. Berdintasunaren efektu eragilea sustatzea **erakunde kontratatzaile gisa eta hornitzaile eta azpikontratatuak** enpresekiko harremanetan, gizarte-desparekotasunak zuzentzeko eta berdintasuna sustatzeko.*

Debabarreneko osasun zerbitzuetan garbiketa lanetarako subkontratatuak greban daude otsaila amaieratik, **laugarren hilabetea gutxieneko ingresu ekonomikorik gabe** eta borrokan jarraitzeko prest ekaina osoan. Eskatzen dutena Osakidetzako langileen pareko baldintzak dira, lan beretsua egiten dutelako.

Pandemia garaian oinarrizko zerbitzu izan zirenak, osasun zerbitzua martxan mantentzeko ezinbestekoak direnak, emakumeoi egozten zaizkigun ixileko eta prekarizaturiko eginkizunak; **ozenki eta irmo txalotu nahi ditugu**, eta berdintasunarekiko konpromisoak gauzatu eta **emakume hauei merezi dituzten baldintza duinak bermatzea eskatzen dugu.**

Mendaroko Tratu Onen Aldeko taldetik gure ahizpatasuna adierazi nahi diegu eskualdean sinadura bilketa eginaz Osakidetzari, **Euskadiko emakume enplegatzaile handiena den enpresa publiko** gisa definitzen dena, komunitate moduan, idatzitako konpromisoak kontratatzaile moduan subkontratari ere betearaztera bultzatzeko.

Lan baldintza duinak izatea gutxieneko eskubidea da, ezin du pribilegio maskulinoa izaten jarraitu.



“Las limpiadoras en lucha. Siendo esenciales pedimos condiciones laborales dignas”



En los servicios de salud de Osakidetza de los tres territorios históricos hay sobre 2500 trabajadoras de la limpieza, **casi en su totalidad mujeres**, subcontratadas para dicho servicio. La principal reivindicación de estas trabajadoras es **la homologación**, es decir, obtener condiciones laborales similares a las contratadas por Osakidetza, ya que el trabajo que realizan es similar. **Llevar 5 años en negociaciones para un nuevo convenio.**

Llevar 5 años de negociaciones y cabe destacar que en la introducción del I. Plan de Igualdad de Osakidetza se puede leer: “*Osakidetza comparte el compromiso institucional con la igualdad, como no podría ser de otra manera: la empresa pública que proporciona atención de salud a toda la ciudadanía y que es la mayor empleadora de mujeres de Euskadi, puede hacer mucho en favor de la igualdad. También en un momento de emergencia sanitaria como el que vivimos actualmente como consecuencia de la pandemia de la Covid-19. Osakidetza no descuida sus prioridades, y está decidida a trabajar cada vez con más ahínco para conseguir el objetivo de la igualdad de género, tanto internamente como en la sociedad vasca.*

Fruto de este compromiso es el I Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Osakidetza (2021 - 2024). Las actuaciones en beneficio de la igualdad de mujeres y hombres son una seña de identidad de Osakidetza desde siempre, anteriormente vinculadas a los planes de igualdad de legislatura del Departamento de Salud y ahora recogidas en nuestro primer Plan propio.”



Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldea
mendarokotratuon.blogspot.com

El 20 de enero de 2016, la Dirección General de Osakidetza acordó e hizo público el compromiso de Osakidetza con la igualdad de mujeres y hombres, y lo difundió a todas las personas de la organización y a todos los grupos de interés.

El contenido del compromiso es el siguiente:

Osakidetza – Servicio vasco de salud, declara su compromiso con el establecimiento y desarrollo de políticas que integren la igualdad real y efectiva entre mujeres y hombres, partiendo de la profunda convicción de que la apuesta por la igualdad constituye un valor añadido para nuestra Organización y para toda la sociedad, asegurando la consolidación de un desarrollo sostenible. Para conseguirla, nos comprometemos a:

- 1. Incorporar, de manera sistemática y transversal, la perspectiva de género en todas las actividades, programas y servicios de la Organización, tanto a nivel interno como externo, lo que implica:*

*1.6. Impulsar el efecto tractor de la igualdad como entidad contratante, y en las relaciones **con empresas proveedoras y subcontratadas**, para avanzar en la corrección de las desigualdades sociales y la promoción de la igualdad.*

Las limpiadoras de los servicios de salud de Debabarrena se mantienen en huelga desde finales de febrero, **es su cuarto mes sin unos ingresos económicos mínimos** y están dispuestas a seguir durante el mes de junio. Lo que reivindican son unas condiciones laborales pares a las contratadas por osakidetza, ya que realizan funciones similares.

Queremos aplaudir con brío a las mujeres que sostienen funciones y trabajos invisibilizados pero que han sido esenciales a la hora de responder a la situación de pandemia; **pedimos para estas mujeres las condiciones laborales dignas que merecen.**

Desde Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldea queremos demostrar nuestra sororidad realizando una recogida de firmas en la zona instando como comunidad a Osakidetza, la empresa pública que se autodenomina como **mayor empleadora de mujeres de Euskadi** a que cumplan con los compromisos adquiridos como contratadores.

Tener unas condiciones laborales dignas es un derecho fundamental, no puede seguir siendo un privilegio masculino.



Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldea
mendarokotratuon.blogspot.com